

loba arteko senidetasuna kirtenkeri utsa baño ezta.

Osaba-lobak euren aburuz eztira senidiak, ezin ledikez ixan be, eztagolako beste senidetasunik «totem» lotuten dabezan lokafijak baño ta osaba-lobak ezin dabe «totem» berbera euki. Au aŕuteko eskontza lagija jakin-biaŕa dogu. Gixeli bakotxa «paratria» biferan banatuten da, ta «paratria» bakotxa ostera «Kalan» biferan, aunela:

### Gixelija.

Paratria (A)	Kalan (k)	(j) Kalan	Paratria (G)
	Kalan (i)	(l) Kalan	

Paratria batekuak biaŕtuta dagoz beste «Paratria»'kuakin eskonduteko, ta eurokandik jayoten dan umia ezta aŕa ez amaren «Kalan»'ekua ezpada nai ta nai ez a-

ŕaren paratriaren beste. kalanekua Argibidez: (K) kalaneko mutifa eskondu nai bada ezin dau autetsi; (i) kalaneko neskatilarik, ezpada (j) ala (l) kalanekua. Esaterako kalan (j)'ko neskatifa bat autesten badau ta Jaunak seme-alabarik bademotse seme-alaba au ezta kalan (k) ezta kalan (j)'kua be ixango, ezpada nai ta nai ez kalan (i)'kua auxe dalako aŕaren paratriako beste «kalan»'a. Eta «kalan» bakotxak bere «totem» berezija, berena bakafik dana, daukolako, eta eztagolako senitartesunik «totem»'aren lokafitik datofena baño, argi-argi daukagu osaba ta ixeku-lobak ezin dirala senidiak ixan, eta gelgafijagua dana guraso ta seme-alabak eurak be ijjeztira senidiak!!!

*Uŕutia'taŕ Gotzon. M. B. S.*

*Nabaŕniz 1919'gko Iraŕa-17'gn.*

## :BASEŕIKO JAUPARIA:

( AMABOSTEKUA )

Beti pozkafi antxen basefi eskutukuan,  
jaupari onak, Urtzi'ren naya gogo baŕuan,  
ifipafia espaŕian ta bekoki alai,  
zaŕai maiteki, gastiai bigun, samur umiai,  
Goi'ra bidea die irakasten basefitafai,

Apal-apala, ez daki berak ezer dakinik,  
txaunkidien poz ta atsekabien befi besterik;  
goimaitetsua, ez daki ere nun ta zer daukan  
lagun urkoa bera bezela jabe ez danikan,  
ta iŕori dio biotza ere osorik eman.

Baŕian beretzat yoran bat zayo gogoan jayo,  
ta basefitik aldendu naya beronek dio;  
urirontz ote?.. txindi, atsegin, edo ospe bila?..  
¡Ori gutxi da! Jaupari onak geyago deska!  
asko geyago: ¡Donokia da berak nai duna!—**TENE.**